# KUDEAKETA TXOSTENA 2018

**Bazkide agurgarria:**

2017. urtea Gobernu Onaren politikak garatzen eta gure lan egiteko modua araudi berrira egokitzen eman ondoren, 2018.a, Barne Auditoretza, Arriskuen Kudeaketa eta Aktuarial eremuak abian jarri diren urtea izan da. Era berean, eta Gordailuaren funtzio berriak kontuan hartuta, gordailuzaina aldatu dugu, eta BNPrekin lan egiten hasi gara.

Etengabeko Hobekuntzarekin konprometituta, GEROAk beste urte batez **ISO 9001:2015** ziurtapena mantentzen du eta gainera, gure lan onaren emaitza dela eta, IPE aldizkari ospetsuak berriro eman digu **Espainiako Enpresa Anitzeko Pentsio Funtsik Onenaren** saria.

IPE AWARDS 2018 WINNER
SPAIN (multi-employer scheme)

Gero eta zerbitzu hobea eskaini nahian, gure taldean bi langile berri ditugu, Inbertsioetan eta Bazkidearen arretan, horrela, gure komunikazioa hobetzeko lanean jarraitzen dugu, argiagoa eta gardenagoa egiten saiatuz.

Beste alde batetik, Prestazioen Araudiko 6.3.1 artikulua aldatu dugu, prestazio-eskaeretan dokumentazio osatugabea jasotzean nola jokatu zehazteko.

**MERKATUEN BILAKAERA**

Finantza-merkatuen bilakaera txarra izan da 2018. urtean eta, tamalez, aktibo gehienetan. Ia aktibo bakar batek ere ez du babesik eman, eta, hortaz, oso zaila izan da itzulkin negatiboak izan dituzten aktiboak konpentsatzeko neurriko itzulkin positiboak aurkitzea. Finantza-merkatuen bilakaera negatibo honen arrazoiak askotarikoak dira; hala nola, Estatu Batuen eta Txinaren arteko merkataritza-gerraren garapena, ziurgabetasuna Europako politikan edo Estatu Batuetako barne-politikaren hauskortasuna azpimarragarriak direlarik.

Inbertsio-zorro horren errentagarritasuna negatiboa izan da: **–% 4,84**. Honen arrazoi nagusiena errenta aldakorrean izandako agerpena da (–% 4,23), eta, neurri txikiagoan, merkatu-balioko errenta finkoa (–% 0,84); zorroaren gainerako osagaiek portaera laua izan dute ekitaldian zehar.

**Joseba Villarreal**
GEROAko Lehendakaria

GEROA PENTSIOAK BGAE/EPSV

## 2018A ZENBATEKOTAN

### EKARPENAK

EKARPENAK **92,43** MILLONES €

ENPRESAK **9.294**

**20** SEKTOREAK

ATXIKITAKO ENPRESA BERRIAK **1 Eko-Rec**

**3** SARRERAKO INTSULDAKETAK

SARRERAKO INTSULDAKETEN ZENBATEKOA **51.088€**

### INBERTSIOAK

**1. FUNTSAREN DIBERTSIFIKAZIOA**



- %11,37 EPE LABURRERA
- %46,78 ERRENTA FINKOA
- %35,11 ERRENTA ALDAKORRA
- %6,75 BESTE ZENBAIT

**2. FUNTSAREN DIBERTSIFIKAZIOA**

%100 ERRENTA FINKOA

### PRESTAZIOAK

PRESTAZIOAK **52,98 M€**
37,30 M KAPITALEAN
15,68 M ERRENTAN
**2.597** BAZKIDE KOPURUARI
1.915 Erretiro
338 Ezintasun Iraunkor Oso
159 Ezintasun Iraunkor Absol.
11 Elbarritasun Handi
174 Heriotz

KAPITAL GEHIGARRIA DUTEN PRESTAZIOAK (bazkide aktiboen ezintasuna eta heriotza) **375**
12.597.641 €-koak eta horietatik 4.814.762 € kapital osagarrikoak dira

**61** IRTERAKO MOBILIZAZIO

IRTEERAKO INTSULDAKETEN ZENBATEKOA **451.261€**

ERRENTAREN GUTXIENEKO ZENBATEKOA
2018 URTEAN: **173€**
2019 URTEAN: **175€**

2018KO ERRETIRO ERRENTEN BATEZ BESTEKO ZENBATEKOA **182,47€**

**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO INBERTSIOAK**




2018KO ZUZENEKO INBERTSIOAREN GUZTIZKO ZENBATEKOA **1,0 M€**

2018AN PARTAIDETZAKO ENPRESETAN DAUDEN LANPOSTUAK **52**

2018AN ORZAREN PARTAIDETZAKO ENPRESETAN DAUDEN LANPOSTU BERRIAK **173**

### ERRENTAGARRITASUNA ETA GASTUAK

| GASTUAK | | ERRENTEN BALIOA HANDITZEA | |
|---|---|---|---|
| ADMINISTRAZIO GASTUAK %0,11 | HIRUGARRENEN KOMISIOAK %0,30 | GEROAko ALDI BATERAKO ERRENTAK %1,50 | KPI %1,20 |
| GORDAILUZAINTZA GASTUAK %0,02 | TXANDAKATZE RATIOA %78,18 | GEROAko BIZIARTEKO ERRENTAK %0 | PENTSIO PUBLIKOA %1,60 |
| BITARTEKARITZA GASTUAK %0,03 | ORDAINTZEKO BATEZ BESTEKO EPEA EGUN 1 | | |

**ERRENTAGARRITASUNA**

| | 1 URTE | 10 URTE | 1996az geroztik |
|---|---|---|---|
| KPI | %1,20 | %1,22 | %2,17 |
| GEROA | -%4,84 | %6,04 | %6,10 |
| BATEZ BESTEKO errenta finko mistoa (INVERCOREN datuak) | -%4,16 | %2,23 | %2,93 |

### ONDAREA

1. FUNTSAREN ONDAREA **1.954** MILIOI € -%3

2. FUNTSAREN ONDAREA **31** MILIOI € ↑ %91,50

KAUDIMEN MARJINA **%58,94**

ERAKUNDEAREN ONDARE GARBIA **40,35** MILIOI €

KUDEATUTAKO ONDAREA GUZTIRA **2.028** MILIOI €

### BAZKIDEEN GOGOBETETASUNA

GOGOBETETASUN OROKORRA **7,43** (+%0,56)

EKARPENAK EGITEN JARRAITU NAHI LUKETEN LANGILEAK **%87**

EKARPENEKIN ADOS DAUDEN EDO EKARPEN HANDIAGOAK EGIN NAHI DITUZTEN LANGILEAK **%97**

### KOLEKTIBOA

2018AN EKARPENAK EGIN DITUZTEN BAZKIDEAK **113.298** ↑ %4,55

GIPUZKOAko langile guztien %36

Batez besteko adina 43,33 urte

GIZONAK **%66**

EMAKUMEAK **%34**

2018AN EKARPENIK EGIN EZ DUTEN BAZKIDEAK **154.580**

ERRENTAN KOBRATZEN ARI DIREN BAZKIDEAK **2.377**

ERRENTAN KOBRATZEN ARI DIREN ONURADUNAK **408**

### GURE KUDEAKETA

GEROA PENTSIOAK BGAE/EPSV

LANGILEAK **22**

GIZONAK 6

EMAKUMEAK 16

ARRETA EUSKARAZ **%86**

LANGILE BATEN BATEZ BESTEKO ONDAREA 1996AZ GEROZTIK **36.479€**

ERRENTAGARRITASUNA **15.373€ %42**

EKARPENAK **21.107€ %58**

**GEROA PENTSIOAK ENPLEGUKO BGAE**
**GEROA PENTSIOAK EPSV DE EMPLEO**
Lugaritz Pasealekua, 27
20018 Donostia (Gipuzkoa)
**Tel. 943 317 022**
**www.geroa.eus**

ISO 9001 BUREAU VERITAS Certification

2017 KUDEAKETA AURRERATUARI DIPLOMA A LA GESTION AVANZADA

Kudeaketa txosten osoa, 2018ko Memoriarekin batera eskuragarri dago gure web orrian
**www.geroa.eus**